



BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN ERRONKARAKO OINARRIAK

1. Zer da Biok!?

BiOK! Topaleku bat da, negozio-aukera berriak sortzea sustatzen duena. BEAZek eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikitako entitateak, eta bi helburu dauzka:

- Bizkaiko enpresa erreferenteen kokaleku lehiakorra sendotzea, tokiko eta nazioarteko talentua nahiz gaitasunak enpresa horietara sar daitezzen bultzatuz.
- Startupak, ETEak edo gaitasun handiko bestelako antolakundeak Bizkaia erakartzea eta horiek bizkortzea, enpresak teknologikoak eta/edo ezagutza-arlo jakinetakoak izan gorabehera, lehenengo merkatu-aukera bat emanez.

Munduko edozein txokotako startupek eta antolakundeek aurkeztu ahalko dituzte proposamenak BIOD! plataformara. Erakunde erreferente bakoitzak erronken bidez identifikatuko ditu bere garapen-lehentasunak, erronka horiek beren analisi- eta hautapen-prozesuak izango baitituzte.

Benetan uste dugu modu irekian eta elkarlanean berritzea dela dibertsifikatu eta hazteko biderik arrakastatsuenak.

2. Dokumentuaren xedea

Dokumentu honetan, zerbitzua antolatu duen enpresaren (BEAZ) eta Bizkaiko Bizkaiko Portuko Agintaritzaren arteko lankidetzarako oinarriak ezartzen dira, erronka bota nahi diotelako ekosistema berritzaileari.

3. Parte hartzeko betekizunak

Erronkan, edozein ekintzailek, startupek, ETEk, zentro teknologikok edo unibertsitatek hartu ahalko du parte, planteatzen den erronka zati batean edo osorik ebatzen lagundu dezakeen proposamen batekin. Planteatzen den erronkari beren konponbidea eskaini nahi dioten antolakundeek ez dute zertan Bizkaian kokatuta egon.

Berez edo bat-batean betekizunetako bat betetzen ez duten parte-hartzaileak erronkatik kanporatu ahalko dira. Hala izatekotan, ez dute zerbitzurik jasotzeko aukerarik izango, eta ez dute deialdi honen antolatzaileei ezer eskatzeko eskubiderik izango:

- Startup, ETE edo antolakunde bakoitzak proiektu bakarrarekin hartu ahalko du parte, banaka edo beste batzuekin elkartuta.
- Konponbidearen garapenean parte hartzen duten taldekideek adin nagusikoak izan beharko dute, eta lege-ahalmena eduki.
- Parte-hartzaileek erronkan erregistratzean ematen dituzten datuek egiazkoak eta osoak izan beharko dute.



Deialdi honen antolatzaileek eskubidea izango dute, aldez aurretik abisatu gabe, beren ustez iruzurrez, gehiegikeriaz, programaren espirituaren edo legearen aurka, hirugarrenen eskubideen aurka eta/edo fede onaren aurka jarduten duten parte-hartzaile guztiak erronkan ez onartzeko edo horiei baja emateko. Jokabide horien ondorioz, gainera, erantzukizunak sortu ahalko dira, eta parte-hartzaileek beren gain hartuko dituzte oso-osorik, antolatzaileei kalterik eragin gabe. Era berean, antolatzaileek edozein parte-hartzailei eman ahalko diote baja, haren edo harekin zerikusia duen baten jokaerak antolatzaileen izen ona zikindu ahal badu. Halaber, edozein parte-hartzaile ez onartzeko eskubidea dute, planteatzen diren erronkei behar bezala erantzuten ez diela uste badute, dagoeneko proiektu ugari onartu badituzte edo bestelako arrazoiengatik.

Erronkan izena ematean, parte-hartzaileek osorik eta erreparorik edo baldintzarik gabe onartuko dituzte oinarri hauetan jasotzen diren baldintzak.

4. Eskabideak aurkeztea

Egitasmo honetan parte hartu nahi duten antolakundeek eskaeraren inprimakia bete beharko dute, eta eskatzen zaien edo interesgarri ikusten duten informazio guztia erantsi.

- ✓ Eskaera plataforma honen bidez aurkeztu ahalko da:

<http://bizkaiaok.eus>

- ✓ Informazio gehigarria hemen:

info@bizkaiaok.eus

Eskaeraren inprimakiak honako informazio hau jasoko du:

- Harremanetan jartzeko informazioa.
- Enpresari buruzko informazio orokorra.
- Proposatutako konponbidea.
- URL – proposatutako konponbidearen azalpen-bideoa (hautazkoa)
- Proposatutako konponbidearekin zerikusia daukaten berrikuntza-elementuak (produktua, prozesua, marketina eta antolaketa) edo I+Dko emaitzak.
- Proposatutako konponbidearekin zerikusia daukaten teknologiak (egotekotan).
- Konponbidearen garapenean parte hartuko duen lantaldea.
- Onurak.
- Arriskuak.
- Laguntzaileak.
- Garapenaren egoera.
- Kostua.
- Epeak.
- Bestelako oharrak.
- Datu pertsonalak babesteko politikaren onarpena.

Hautagaitzak aurkezteko epea 2021eko ekainaren 10ean hasiko da, eta 2021eko uztailaren 23an amaitu, 18:00etan (GMT+1).



Startup eta ETE partaideen zalantzak argitzeko, online informazio-saio bat egingo da 2021eko uztailaren 7an.

5. Ebaluazio-prozesua

Proiekturik onenak hautatzeko xedez, Bilboko Portuko Agintaritzako eta BEAZeko langileek osaturiko ebaluazio-talde bat eratuko da, eta haiek egingo dute hautapen-prozesua.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, BEAZek aurkeztu diren eskaeren kalitatea berrikusiko du, eta eskatutako informazioa behar bezala bete ez duten guztiak baztertuko ditu (astebete).

Bilboko Portuko Agintaritzak izendatutako langileek aurkeztu diren eskaerak aztertuko dituzte, eta guztiak baloratuko dituzte, ikuspegi tekniko batetik abiatuta, proiektuen lehen hautapena egin arte (hiru aste).

Lehen hautapenean aukeratzen diren proiektuekin, banakako elkarrizketak egingo dira (online edo telefonoz), ebaluazio-taldeak proposatu den konponbideari eta talde sustatzaileari buruzko informazio gehiago izan dezan. Elkarrizketa horiek 2021eko irailaren 6tik 17ra bitartean egingo dira.

Proiektu finalistek “In factory innovation trip” elkarlaneko sorkuntza-tailerrean parte hartuko dute. Tailerrak bi egun iraungo ditu:

- 1. eguna: zehatz-mehatz ezagutzea Bilboko Portuko Agintaritzak, Bizkaiko ekosistema berritzailea eta erronkaren xehetasuna. Aurrez aurre lan egingo da egun batez Bilboko Portuko Agintaritzako teknikariekin, proposatutako konponbideak aztertzeko.
- 2. eguna: hautatzen diren proiektuak beren konponbidea *feedbackera* egokitzen saiatuko dira, eta azken aurkezpena egingo dute.

“In factory innovation trip” tailerra egiteko egun aurreikusitak 2021eko irailaren 21a eta 28a dira.

Ebaluazio-taldeak orduan aukeratuko du irabazlea. Emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira 2021eko urriaren 8an.

Adierazitako datak aldatu egin daitezke, behar izanez gero.

Proiektua aztertu eta ebaluatu ahal izan dadin, parte-hartzaileek baimena ematen dieten antolatzaileei deialdi honetan parte hartzeko esparruan emandako ideiak, dokumentazioa eta informazioa ebaluazio-taldeko kideei jakinarazteko.

Ebaluazio-taldeak honako alderdi hauek baloratuko ditu proposamen finalistetan:

- Berrikuntza: proposatutako konponbidearen berrikuntza-maila baloratuko da.
- Proiektuaren eraikuntza-maila: proposatutako konponbidearen garapen-maila baloratuko da.
- Proiektuaren lantaldea: antolakunde parte-hartzailearen taldea baloratuko da (eskarmentua, ardura-maila, merkatuaren ezagutza, kontaktuak eta abar).



- Epeak: konponbidea merkatuan operatibo egon daitekeen denbora.
- Bideragarritasuna: proiektuaren bideragarritasuna eta konponbidearen nahiz konponbidea benetako ingurune batean mantentzearen kostua.
- Proiektuaren irismena: proposatutako konponbidearen erantzun-maila eta planteatu den problematika nola jorratzen duen baloratuko da.

6. Proiektu irabazlea

Bizkaiko Portuko Agintaritzak erronkaren enpresa irabazlea hautatu eta kontratatuko du, proiektu pilotu bat garatu dezan; gehienez ere, 15.000 euroko zenbatekoan.

Enpresa irabazleak gutxi gorabehera sei hilabete izango ditu proiektua egiteko (Bilboko Portuko Agintaritzarekin hitzartuko da epea).

7. Jabetza industrial eta intelektuala

Proiektua eta proiektutik erator litezkeen patenteak hautagaitza aurkeztu duen pertsona edo enpresaren jabetzakoak izango dira une oro. Erronkan parte hartzeak ez du esan nahi pertsona edo enpresa hautagaiak enpresa erreferenteari partaidetza lagatzen dionik.

Hala ere, erronka irabazi duen proiektuak erreferentziatzeko enpresarekin konponbidearen benetako proiektu pilotu bat gauzatzeak bi aldeak lotuko dituen kontratu bat sinatzea ekarriko du. Kontratu horretan, besteak beste, pilotua gauzatzetik sortutako balizko jabetza industrial/intelektualen ondoriozko erabilera-baldintzak adostuko dira.

8. Azken gogoetak

Parte-hartzaileek berariaz onartzen dute, deialdi honetan parte hartze hutsagatik, antolatzaileek beren izena erabili ahal izatea (bai norberaren izenean, bai startuparen izenean), bai eta hari lotutako irudi eta/edo logoak erabiltzea ere, edozein bide erabilita eta korporazio-, publizitate- eta sustapen-xedez bakarrik eta/edo proiektu irabazlea gainerako parte-hartzaileei eta publiko orokorrari ezagutarazteko asmoz, lurralde- edo denbora-mugarik gabe eta inolako ordainsaririk sortu gabe.

Erronka hau aldatu, eten, desaktibatu eta/edo bertan behera utzi ahal izango da, baldin eta horretarako arrazoi justifikatuak badaude.

Era berean, antolatzaileek eskubidea izango dute onura guztiak edo batzuk esleitu gabe uzteko, baldin eta, ebaluazio-taldearen irizpidearen arabera, aurkeztutako proiektu batek ere finalista edo irabazle izatea merezi ez badu.